



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 196. alea - 2015eko maiatza

...eta
baGOAZ!!

ALDATS FRONTOIA

XXIX. ANTZERKI ASTEA
DEBA 2015



MAIATZAREN 22tik 31ra

Antolatzailea:  GOAZ
ANTZERKI
TALDEA

Laguntzailea:  DEBAKO
UDALA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



naturakofa del que da
autorización API 447

Hazitik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

kutxa

kutxabank

AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorralak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE

FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoiiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia; teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



aurkibidea

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:
Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:
Izaro Aulestiarte
Azaleko irudia:
Erredakzio taldea
Publizitatea:
Joseba Escudero eta Koldo Aperribai
Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Maketazioa:
Leire Rubio
Inprimategia:
Euskalinpri
Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:
Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERA



LAGUNTZAILERAK



04-05

Kolaborazioak:
Debako Gazte Asanblada eta Eider Zulaika.

07

ALBISTEAK

“Urak dakarren hitza”,
Liburuaren Egunaren bueltan antolatutako ekimenak



10

ALBISTEAK

Martxan dago jadanik
Eskolak Garbirik proiektua



11-14

B. GAZTEA

Debarren Eguna, elkarrizketa
Martin Hernandez Beitiari,
inkesta, denbora-pasak...



Ander Salegi

15

KRONIKA

VI. Zubeltzu Bertso Paper
Sariketak baditu irabazleak



18

ZERBITZUAK



ITIOCFaidh ÀR LÀ, gure eguna helduko da

Horiek izan ziren, hain zuzen ere, Bobby Sands irlandar iraultzailearen hitz ezagunenak. Etorkizun hobe baten aldarri bilakatu zen esaldi honen jatorria, ordea, iragan ilun batean kokatzen da.

Irlandako gatazka hainbat mendetan zehar luzatzen den arren, 1981. urtean H-Blokeetako kartzeletan emandako gose grebak inflexio puntu bat ekarri zuen. Protesta hau, preso zeuden irlandar nazionalista errepublikarrek beren preso politiko izaera onartu eta kartzelan jasaten zituzten tratu txarren aurka buruturiko aldarrikapen ekintza bat izatetik haratago, Britainia Handiaren eta komunitate irlandarraren arteko norgehiagoka bilakatu zen; mendeetako kolonizazioaren, zapalkuntzaren, mespretxuaren eta bazterketaren aurka egindako beste ekintza bat gehiago. Azkenik, Margaret Thatcherren gobernuak gose greban zeuden 10 preso hiltzen utzi zituen, hauen artean demokratikoki hautatutako bi ordezkari zeuden arren, parlamentu britainiarreko kide zen Bobby Sands eta Irlandako parlamentaria zen Kieran Doherty.

Irlandako borrokalari horien askatasun grin inspiratuta eta lagun min bat bisitatzeko aitzakiarekin, Belfast gure etxea bilakatu zen astebetetz.

Ukaezina da Irlanda iparraldean bizitako gatazka sozial eta armatuak ondorio lazarriak eragin dituela bertako gizartearen. Galera fisikoei dagokienez, estatistikek argi uzten dute guda egoera baten aurrean gaudela. Hala ere, egoera harrigarriago bihurtzen da, liburu-etatik aterata eta, West-Belfasteko auzoetako kaleetatik buelta bat emanez gero. Izan ere, nonahi aurki daitezke hildakoen omenezko muralak, memorialak, plakak eta bestelako orotarriak, gatazka bistakoa da uneoro, gertatutakoa presente dago.

Horrelako gatazkek ez dira ezerezetik sortzen, egiturazko arrazoiak daude eta garrantzitsua da horien inguruan hausnartzea. Mendeetan zehar botere politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala britainiarren kontrolpean egoteak irlandarrak langile klaseko auzo marjinaletan pilatutako, eskubide gabeko, pertsonak bihurtzea bilakarazi zuen. Egoera horren elementu nahiko adierazgarria da XX. mende hasieratik oso gutxira arte pub-etako sarreretan eskegita egon den debeku mezua: *“No irish, no blacks, no dogs”*.

Aipaturiko zapalkuntza estrukturaletik haratago, britainiarrek euren esku zeuden baliabide guztiak erabiltzen zituzten komunitate irlandarra jazartzeko. Ez da ahaztu behar bortxaren monopolioa ere beraien esku zegoela, armada, polizia eta hainbat talde paramilitarren errepresio eta biolentziak irlandarren zapalkuntza egoera areagotzen zuelarik.

Bortizkeriazko testuinguru honetan, erresistentziarako hainbat talde eratzen dira, eraso baten aurkako erantzun modura. Hauen helburua, komunitatearen auzoak defendatu eta Irlanda batu bat eratzea izan zen. Nahiz eta hauek guztiak aspaldiko kontuak ematen duten, Irlandako gatazka armatu modernoak 1969-1998 urte bitarteko epealdia hartzen du; beraz, komunitateen arteko gorroto handia dago oraindik.

Gatazkaren espresio militarra amaitzearen ondorioz, gaur egunean dagoen giroa lasaigoa den arren, “bake lerroak” deituriko auzoen banaketarako hesiek (6-15 metro altuera bitartekoak) eta noizbehinka pizten diren liskar eta istiluek bi komunitateen arteko elkarbizitza normalizaturik ez dagoela islatzen dute, arazoari ez zaiola oinarritzko erantzunik eman, alegia. Oro har, bala eztrandak amaitu badira ere, pub-etako “Rebel Song”-ek jarraitzen dute, memoriarik gabe ez baitago etorkizuna eraikitzerik.

Bestalde, mobilizazio sozialaren mailari dagokionez, konfrontazio gogor baten osteko egoera tipiko baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke, nabarmena baita gizartearen desaktibazio eta konfrontazio maila urria.

Nahiz eta, irlandarren eskubideei dagokienez, hainbat aurrerapauso eman diren, bertako legediak britainiarren alde egoten jarraitzen du, honek ez duelarik benetako aldaketak gauzatea ahalbidetzen. Esaten dutenez, “Justiziarik gabe ez dago benetako bakerik” eta, hau kontuan hartuta, gatazka honek luze joko duela aurreikusitako daiteke, zoritxarrez.


Momentu ilunenetan ere zeruko izarren argia ikusi zutenei errespetuagatik bada ere, borrokan jarraitu beharra dago. Ez dago burua jaisterik, gure eguna helduko da eta.

“Gure haurren irribarrea izango da gure mendekua”. Bobby Sands.

James Conolly Brigada Internazionalista



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



EIDER ZULAIKA

ZIGARRO MUTXIKINA

Orain dela urte batzuk, ez nuen inola ere pentsatuko horrelako kalapita sortu nezakeenik, horrenbesteko buruhaustea eragingo nituenik herritarrongan. Bai, egia da, edonora botatzen ninduten, ez nuen inolako baliorik, alde guztietan traba besterik egiten ez nuenez, begien aurretik kentzea beste kezkarik ez zen izaten gure etxean.

Baina, azken urte hauetan, gauzak asko aldatzen ari direla konturatu naiz.

Hasieran, nere anaia nagusiarengandik banandu ninduten herriko etxe gehienetan. Bai, anaia nagusia hauskorra zen, eta apurtzen zenean ziztatu egiten ninduen. Hori ekiditeko, nire etxeko nagusiak edukiontzi berdera botatzen hasi ziren nire anaia nagusiaren puskak.

Gerora beste aldaketa batez ohartu nintzen, nire etxetxoan, lagun nituen esne kaxa eta egunkariak falta zirela. Egun batzuetan ezin ulerturik ibili nintzen, nora eramán zituzten ezin asmatu, zer pasa ote zitzaien jakin nahian. Halako batean, deiadarka somatu nuen arte egunkaria, beti izan baita "zazpi sukalde" samarra: etxetxo berri bat ipini didate, ni eta nere familia guztiarentzat!! Gainera, urdin kolorekoa

da!!! Nahi adina leku dugu hemen!!!

Esne kaxari, etxetxo horia egokitu zitzaion, berri-berria, poli-polita. Neure begiz ikusi nuen, kaleko osteratxoa egitera eramán ninduten egun euritsu batean. Eta nik betiko etxetxoarekin jarraitzen nuen. Betiko etxetxoarekin, bai, baina gero eta pilaketa gutxiagorekin. Ez ninduten horren sarri ateratzen kalera, etxea gero eta partaide gutxiagok osatzen genuen; laranja azalak, etxeko txikiaren pixoihala...

Denboratxoa igaro genuen, elkarbizitza gero eta bake-tsuagoan, hurrengo aldaketak atea jo zigun arte. Gure nagusien marmar artean, etxetxo aldatu gintuzten, etxetxo txikiago batera, hain zuzen ere. Oraingo honetan nire bizitoki berria berde kolorekoa zen, polita eta oso baketsua. Eta nire lagun min ziren laranja azal eta aza hostoari ere, egokitu zitzairen euren oparia. Marroi koloreko bizitokia ipini diete etxekoek, eta hiruzpau egunetik behin, euren familiako kideekin batzen dira herrian zehar banaturiko etxetxoetan.

Guk horren natural egin badugu aldaketa, gure bizilekuaren mesedetan, zuek zergatik ez?



Sarea osatzen jarraitzen dugu

Joseba Azkarragak eta Jon Kirru Iparragirrek presoen giza eskubideez eta gaixo larrien egoeraz hitz egin ziguten martxoaren 18an Agirre jauregiko ispiluen gelan emandako hitzaldian. Hona hemen beraien mezuaren zenbait zertzelada:

Joseba Azkarraga: "Sare" k ikuspegi ezberdineko pertsonak batzen ditu, zenbait kasutan postura kontrajarriak izandako pertsonak, baina guztiok "Giza eskubideak, konponbidea, bakea" lor dadin egiten dugu lan. Une honetan dispertsioa dugu ardatz; izan ere, euskal presoek eta haien senide zein inguru hurbilari eragiten dien eskubide urraketa da.

183 gipuzkoar daude preso gaur egun espainiar zein frantziar kartzeletan; horietatik 177, sakabanaturik. Preso hauen %18a etxetik 400 km bitartean dago, beste %82a etxetik 5 ordu baino gehiagora aurkitzen da. Azken hauetatik 18, etxetik 1.000 km baino urrunago aurkitzen dira. Kontuan izan honek guztiak suposatzen duen gastua, denbora, nekea, adin handiko gurasoek seme-alabak ikusteko ezintasuna,...

Legalki, espainiar eta frantses estatuak dispertsioarekin amaitzera behartuak leudeke. Estrasburgoko Auzitegiak ere jada bi sententzia emanak ditu gai honen inguruan, eta argi diote presoak bere familiarengandik hurbilen dagoen espetxean bete behar duela zigorra.

Momentu honetan, lehentasuna euskal presoek dagozkieen eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzea da, hau da, Euskal Herriratzea eta gaixo larriak etxeratzea, besteak beste. Baina esan behar da, baita ere, konponbiderako ezinbestekoa izango dela preso guztien etxeratzea.

Jon Kirru Iparragirre: Hamar euskal preso politiko egoera larrian aurkitzen dira gaixotasun larri eta itzulezinak pairatzen dituztelako. Gure anaia (Ibon Iparragirre) muturreko egoeran dago.

Ibon, HIESA (SIDA) birusaren eramailea zen eta espetxeko baldintzen ondorioz birusa aktibatu zitzaion. Egoeraren larritasuna ikusirik kanporatu egin zuten, pultsera telematikoarekin eta beste zenbait arau betetzera behartuz. Ibon etxean zegoen bere gaixotasunarengatik zigor arindua betetzen eta duela urtebete



berrito kartzelaratu zuten. Ibonek HIESA du C fasean, eta orban bat burmuinaren ezker lobuluan; azken honek ikusmen galera izugarria eta funtzio kognitibo batzuen galera areagotzea eragin dio.

Gaixotasunari aurre egiteko gutxieneko baldintzarik ez edukitzeaz gain, jipoiak, lapurretak, isolamendua... pairatzen du. Anaiaren egoera oso larria da, astero beldurrez joaten gara bisitara, zer topatuko dugun ez dakigula.

Ea ba guztion artean berandu baino lehen Ibon eta gainontzeko gaixo larriak etxeratzea lortzen dugun!

"Sarea osatuz, Galarraga Euskal Herrira"

Ezin aipatu gabe utzi, era berean, "Sarea osatuz, Galarraga Euskal Herrira" lelopean apirilaren 18an burutu genuen bizikleta martxa. Eguerdian herrian zehar ibili ostean, dispertsioaren amaiera irudikatu genuen plazan, presoak gaur egun dauden espetxeetatik Euskal Herriratuz, eta jende ugari parte hartu zuen ekimenean. Guztiaren laburpen bat <http://sare.eus/bideoak/> helbidean ikus dezakezue.

Irudikapena egi bihurtu asmoz, indarrak batzen jarraituko dugu.

Debako Sare



Tramitera onartua Gora Deba Itziarko toki entitate txikia eratzearen kontra aurkeztutako errekurtsioa

Esan genuen bezala, joan den martxoaren 25ean Gora Deba Taldeak Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsioa aurkeztu zuen Itziarko Toki Entitate Txikia eratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dekretuaren kontra.

Errekurtsioan, egokia iruditu zaigu toki entitate txikiaren abiaraztearen kautelazko etenaldia eskatzea. Gure iritziz, proposatu eta informazio publiko aurkeztutako lurralde-mugaketa ez dator bat Gipuzkoako Foru Aldundiak

behin betiko onartutakoarekin. Gure ustetan, onartu diren mugen arabera Itziarko toki entitate txikiak 2 km² gehiago ditu eta gainerako lurraldearen hedadura 2,8 km²-ra murriztu da.

2015eko martxoaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak tramitera onartu zuen errekurtsioa eta orain prozesuaren kautelazko etenaldi eskaerari buruzko erabakiaren zain gaude.

Gora Deba Taldea



Liburuaren Egunaren bueltan, “Urak dakarren hitza”



Tene Mujikaren omenezko ekitaldi xume batekin abiatu dira aurturaren Liburuaren Egunaren harira antolatutako ekimenak. “Urak dakarren hitza” lelopean burutu da egitaraua, Udalak, Ostolaza Udal Liburutegiak eta Kultur Elkarteak elkarlanean antolatua, eta lau hitzordu izan dira guztira.

Horietako lehenbizikoa apirilaren 22an egin zen; Lersundi kalean, Tene Mujika jaio eta bizi zen etxea zegoen lekuan –eraikin hura bota eta berria eraiki zuten bertan–, plaka oroigarri bat jarri zuten. 1888ko maiatzaren 24an jaiotako euskal idazle eta olerkari debarren irudia agertzen da bertan, baita hark idatzitako “Nere esnatzea” olerkia ere. Plakaren inaugurazioan, Teneren zenbait olerki irakurri ziren, txistuaren musikaz lagunduta, bertaratutakoaren aurrean.

Egun berean, baina pixka bat beranduago, Alex Turrillas eta Jose Ignacio Trekuren “Deba, ibilaldi bat gure historian zehar. Un paseo por nuestra historia” liburua aurkeztu zen Agirre jauregi-ko ispiluen gela bete-betean. Txiki gelditu zen aretoa aurkezpenean, argitalpenak ikusmin handia sortu duen seinale.

Liburuaren hasieran egileek aipatzen dutenez, euren lan berri honetan herriaren historiako gertaera interesgarrienetako batzuk azaldu nahi izan dituzte, “horietako batzuk gutxi ezagutzen dira edo batere ez, ezta irakurle helduek ere”. Arin eta erraz irakurtzeko moduko istorioa aurkeztu du bikoteak, atal laburretan banatuta, eta Turrillasen testuak Trekuren irudiekin edota argazki zaharrekin apainduta datoz. Bi hizkuntzatan kaleratu da lana (gaztelaniaz eta euskaraz) eta salgai dago liburu-dendetan.



Liburuaren Eguna ospatzeko hirugarren hitzordua apirilaren 23an egin zen. Cárdenas Fundazioak eta Debako Udalak antolatutako “Deba ehun hitzetan” literatur lehiaketako sariak banatu zituzten Agirre jauregian. Euskarazko lanen artean, Elgoibarko Inma Mugerzak lortu du lehenengo saria eta bigarren saria herrian gelditu da, Goizane Aizpuruak irabazi baitu. Estibaliz Beltrán de Heredia, Joseba Escudero eta Eider Zulaikak osatu dute epaimahaia.

Jose Ignacio Niharrak (Madril) irabazi du lehen saria gaztelaniazko kategorian, eta Manuel Terrin Benavidesen (Albacete) lanari eman dio bigarren saria Alex Turrillas, Jesus M^a Etxezarreta eta Patxi Aizpitarrek osatutako epaimahaia. Lehiaketako zenbait idazlan irakurri ziren ekitaldian, ipuin kontalarien eta musika eskolako kideen laguntzarekin.

Aurtengo egitarauari amaiera emanez, apirilaren 24an “Deba” aldizkariaren 30. urtemuga ospatzeko ekitaldia izan zen Kultur Elkartearen. Hitzaldiak, argazkiak, musika eta luntxa ere antolatu ziren ospakizunerako. Egunotan ikusi du argia aldizkariaren udaberriko ale berriak.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi aldizkari hau inprentara bidean zegoela iritsi zen albistea: **Tene Mujika ikerketa-beka** Jose Mari Izaga, Francisco Salegi eta Carmelo Urdangarinek osatutako taldeari eman diote. “Debako zentral nuklearraren aurkako herri mugimenduaren historia” izeneko lana osa dezaten, Debako Udalak emandako 6.000 euroko laguntza izango dute, eta Elkar argitaletxeak argitara emango du gero.

Erabakia ehuntzen



Pasa den apirilaren 25ean (larunbata), erabakitze eskubidearen aldeko Joste Eguna ospatu zuten Euskal Herriko hiri eta herri askotan, tartean Deban ere. Ekimena Gure Esku Dago mugimenduak antolatu zuen, eta oihalak josi eta ikusteko aukera izan zen Foruen plazan. Alegia, azken asteotan herriko



elkarte, eragile eta norbanakoen laguntzaz eta borondatez apaindutako oihalak elkarri josita, zintzilikatuta jarri zituzten ikusgai.

Eguraldia lagun, pintxoak dastatu eta Gure Esku Dagoren aurtengo kamisetak erosteko aukera ere izan zen.



XXIX. ANTZERKI ASTEA

*Antzerki astea da
herrian ezagun
Ohartu ze aukera
Ederra daukagun
Familia, bikote
Kuadrila eta lagun
Guztiok elkarrekin
gozatu dezagun*

*Aurkezle, antzezleak
ta ikusle finak
Otsoak, printzeak ta
mendiko sorginak
Desberdintasun hortan
guztiak berdinak
Mingain guztiak daude
Euskaraz eginak*



Maiatzak 22, ostirala:

Kale antzerkia,
20:00etan.

“KONGA”

Trapu Zaharra. Donostia.

Desanparatuen langile sindikatuak, bere momentu txarretan, langile gehiago behar ditu irudia hobetu ahal izateko. Horretarako, sei aste-ko tailerra antolatuko du; bertan, coach baten bidez langabezia luzaro dauden pertsonak birmoldatzen ditu.

Maiatzak 23, larunbata:

Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:30ean.

“OLERKIA ETA ANTZERKIA OMENDUZ”

Eugenio Arocena, Daniel Landart, Goaz Antzerki Taldea, Kulunka Dantza Taldea, Gure Kai Dantza Taldea, Kalez Kale txistulariak...

Maiatzak 24, igandea:

Kale antzerkia,
13:00etan.

“TENDERETE”

Bapatean zirkoa.
Gasteiz.

Edozein egun, edozein lagun. Edozer edonola kontatuta: Tenderete. Egunerokoari lotsarik gabe aurre egiten dion bikote honek gauzak egiteko eta sentitzeko duen moduak, zentzurik gabeko erlazio eta egoeretara eramango ditu. Zuzeneko musika, clowna eta zirku teknikak nahasten ditu lan honek.

Maiatzak 26, asteartea:

GOAZ Aretxean, 10:30ean eta 11:30ean.

“GAUEKO SOINUAK”

Aizarnako Eskola Antzerkia. Aizarna.

Istoriok hau Aizarnako inguruetan gertatzen da. Egun batetik bestera, gauak soinu harrigarriak betetzen dira. Kezka, beldurra, amorrua, jakinmina nahasten dira biztanleen artean. Misterio hau argitzeko bertako haur talde bat prestatuko da. Sorpresa ugari izango dituzte lan honetan. Abentura paregabea!

Maiatzaren 22tik 31ra ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik



Ene, azkar esaten den arren, dagoeneko iritsi da 29. udaberria debarron artera, dagoeneko Debako Antzerki Astea 29. urtemugaren atarian aurkitzen da. Nork esango luke debar gazte batzuen antzerkirako zaletasunak bulzatuta, horrelako ibilbide luzea izango zuenik?

Eta urtero legez, bagatuz aurten ere, udaberriko loreak bagina bezala, antzerkiz betetzera gure herriko txokoak. Bai, gogoan ditugu Euskal Jolas frontoian edota Zubeltzu zaharrean erein genituen haziak; baita herriko kaleak apainduz jarri genituen lore-sortak ere...

Egia da, bai, Antzerki Asteak kolorez

beteriko loraldiak izan dituela. Baina baita,aldi berean, lehortearen eraginez, edota ongari nahikoa izan ez duelako, nekez irten diren kimu berriak ere. Hala ere, oraingo honetan indarberriturik irtengo direlakoan gaude, Aldats pilotalekuan, Itziarko zentroan, herriko kaleetan... landatzeaz dauden antzerkiz beteriko adar, hazi, zuhaixka... eta gainerako guztiak!

Goaz Antzerki Taldeak, zinez, aholkatzen dizuegu, antzerkiz osaturiko Debako lorategi hau bisitatzera animatzea, kolore desberdineko lili, oraindino ezagutu ez zenuten zuhaitz edota betidanik gustuko izan duzuen larrosa hori usaindu eta gozatzera.



Maiatzak 28, asteazkena:

Aldats pilotalekuan,
17:00etan (3 euro).

“ESKETX MERKEENA”

Korri, Xalto eta Brinko.
Lezo.

Korrik eta Xaltok irratia piztu eta sorpresa hartu dute: betidanik esketx ederrenaren txapelketa zena, krisiaren ondorioz, esketx merkeenaren txapelketa bihurtu da. Publikoak, haurrak, gurasoak eta pailazoak... nork bere esketxa aurkeztuko du... nork irabaziko ote du?

Maiatzak 29, ostirala:

Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

“HARIAK”

Orratx Antzerki Taldea.
Lezo.

Elkarren artean inolako harremanik ez duten sei lagunek gutun bat jasoko dute; denek ezagutzen duten emakume bat (Teresa) izango da guztiak lotuko dituen. Amnesia diagnostikatua du Teresak, eta sei lagun horien izenak besterik ez ditu aipatu...

Maiatzak 30, larunbata:

Aldats pilotalekuan,
22:30etan (6 euro).

“100 m2”

Txalo Antzerki Taldea.
Donostia.

Sara pisu bila dabil eta azkenean gustukoa lortuko du prezio eta leku onean, baina badu zer-bait gaizki datorkiona: jabeak bertan bizi behar du bere azken egunera arte... Emozioz eta adiskidetasunez betetako eszena dibertigarriak ikusiko ditugu komedia honetan.

Maiatzak 31, igandea:

Aldats pilotalekuan,
20:00etan (5 euro).

“INUNGANE. SUSTRAIAK AIREAN”.

Karrika Antzerki Taldea. Durango.

Sorterritik irteteko arrazoiak zeintzuk diren, zer sentitzen duzun... gu etorkin bihurtu eta barrura zein kanpora bidaia bat egitea. Joan eta etorri, irten eta sartu, mugimendu honen bitartez gure izanaren bidean jarri eta bidaia hau egiteko askatasuna aldarrikatuz.

Martxan dago jadanik Eskolak Garbirik proiektua

Gipuzkoako gizarteko hainbat sektorek hondakinen aferari buruzko kontzientziazio, prebentzio eta formakuntzaren beharra adierazi dute. Eta, eskaera horri erantzuteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, Debanatura elkarteak, Luzaro L.H. eta Mendata D.B.H ikastetxeekin elkarlanean, "Eskolak Garbirik, Zero Zabor Bidea Debarrenean" proiektua burutzeko konpromisoa hartu du.

Gizarte osoak sortzen ditu hondakinak eta, beraz, haien kudeaketa egokia gizarte osoaren ardura da nolabait. Hala ere, hezkuntza arloak funtsezko papera jokatzen du prozesu horretan, mezu argia helarazi behar baitie belaunaldi berriei: ingurumena babestea norberaren eta gizarte osoaren ardura da.

Eskolak gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzun nahi badie, ingurunea ulertu eta bertan esku hartzeko ezagutzak eta gaitasunak ezarri behar ditu, hobekuntzarako konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatuz; eta, zentzu honetan, hondakinen gaiaren inguruko hausnarketa bat egitea ezinbestekoa litzateke.

Hori dela eta, heziketa eta prebentzioa hondakinak

egokiro kudeatzeko premisa ezinbestekotzat har ditzakegu.

Testuinguru honetan, "Eskolak Garbirik, Zero Zabor Bidea Debarrenean" esperientzia honetan parte hartzen dugun eragileok, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentzioari buruzko Dekalogoaren espirtuarekin bat eginez, hondakinen prebentzioari buruzko konpromisoa hartzen dugula adierazi nahiko genuke.

Hori hala izanda, 2014-2015 ikasturtean zehar, batetik Debanaturak Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako tailerrak sortu ditu eta aurtien, lehenengo aldiz, Debako Luzaro ikastetxean Sentsibilizazio Kanpaina bat abiatu da.

Bestalde, maiatzean Mendata DBHko lehen mailako 60 bat ikaslek tailer hauek jasoko dituzte eta, aldi berean, Eskolako Konpostagunea martxan jarriko dute, horretarako jangelan sortutako hondakin organikoaz beteko den edukiontzi bat asteazkenetan eramanez. Eskuartein daukagun proiektu pilotu honek Debako Udalaren kolaborazioa ere izan du, eskolan sortu den Konpostagunea atontzeko lanez arduratuz.

Diego Mendoza, Debanaturaren izenean



Herriko dantzari eta musikariak protagonista apirilaren 25ean Iruditan jaso ditugu egunak emandako zenbait une alai:

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko barra klasikoaren erakustaldia, flashmob herrikoa...



Ander Salegi



Txistularien alardea udaletxeko arkupeetan, euskal dantzak...



BERRIKETAN GAZTEA

2015eko maiatza
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

Debarren Eguna maiatzaren hirugarren asteburuan ospatzen da, hirugarren igandean hain zuzen ere. Egun hau gutxi gorabehera 1978. urtetik ospatzen dela uste da; festa berria da hortaz, ez ditu horrenbeste urte. Urtero-urtero ospatzen da, eta egitarauan zerbait aldatzen da urteak pasa ahala, baina estruktura aldetik berdina izaten jarraitzen du. Lehen, ostegunean hasten ziren ospakizunak, umeen jolasekin, baina orain ostiral arratsalde-gazte hasi eta igandean bukatzen dira.

Aldizkari hau prestatu dugunerako, aurtengo Debarren Eguna ospatu da jadanik, baina egitarauaren baitan antolatutako ekimenak zeintzuk izan ziren gogorarazi nahi dizuegu:

Ostiralean, iluntzeko 20:00etan banda gaztearen kontzertua izan zen. Larunbat goizean, beriz, haurren margo lehiaketa izan zen eta eguerdian giza-probak izan ziren, idi pare baten aurka lehiatzeko, Euskal Jolas pilotalekuan.

13:00etatik aurrera musika izan zen protagonista herrian. Debako Bandak kontzertua eskaini zuen Lizarrako gaiteroekin. Eta kalejira ezberdinak izan ziren gero kalez kale, trikitilariak ere tartean. Arratsaldean, azken bi urteetan bezala, danborrada egin zen; lehen, San Roke festetako danborradaz gain, San Sebastian egunean egiten zen beste bat, baina orain Debarren Egunean egiten da, Debako musika obra berezi batzuk eskainiz. Deba musikaleko ikasleekin eta Ozio Bidekoekin burutzen da, arratsalde partean. Eta gauean, bestalde, erromeria izan zen Foruen plazan, Gora Herria taldearen eskutik.

Igandean, goizeko 8:00etan diana izan zen Lizarrako gaiteroekin, eta 9:00etan entzierroa. Gero, 11:00etan, San Roke ermitan meza egin zen eta hantxe bertan Gure Kaiko dantzariak aritu ziren, tradizioari eutsita. Bueltan, plazan salda eta txorizoa eskaintzen dute herriko soziedadeek, eta Gure Kai taldekoek aureskua dantzatu zuten. Erraldoien konpartsen desfilea ere izan zen goiz partean, eta arratsaldean beriz irten ziren guztiak kalera, alardean. Gainera, haur margo lehiaketako sariak ere banatu zituzten, eta iluntzean Ingo Al Deu taldearen erromeria izan zen plazan, aurtengo ospakizunei amaiera polit bat emateko.

Debarren Eguna



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi



ELKA RRIZ KETA



Martin Hernandez Beitia:

“Hamar urte nituenean hasi
nintzen korrika egiten”

Gure institutuan ikasten du Martin Hernandez Beitiak. Azken hilabeteotan erakustaldi bikainak egin ditu hainbat kirol modalitatetan, eta lorpen horiek eman digute elkarrizketa hau egiteko aitzakia. Besteak beste, aurtengo Euskal Herriko txapelduna da krosean eta baita 1.000 metrotan ere. Era berean, xabalina-jaurtiketan ere Euskal Herriko txapelduna da. Hona hemen Martinekin izan dugun solasalditxo:

Noiz hasi zinen korrika egiten?

Hamar urte nituenean hasi nintzen korrika egiten.

Non egiten dituzu entrenamenduak? Zenbat aldiz joaten zara astean?

Gehienetan Elgoibarren entrenatzen dut, Mintxetan. Normalean astean birtan joaten naiz, eta batzuetan hiru aldiz.

Nork entrenatzen zaitu?

Nire aitak.

Horrek segurtasuna ematen al dizu?

Bai, konfiantza handia ematen dit. Berak ni oso ondo ezagutzen nau, konfiantza du nigan eta ondo daki zer egiteko gai naizen.

Zer nolako lasterketetan aritzen zara?

Medio fondo egiten dut.

Sari ugari jaso dituzu, hainbat kirol modalitatetan. Txapelketa askotan parte hartzen duzu?

Bai. Euskadiko krosean, xabalina-jaurtiketan eta 1.000 metrotan, adibidez.



ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Hilabete honetan, eskolaz kanpoko ekintzak hartu ditugu hizpide. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak eta jasotako erantzunak:

- 1.- Zer ekintza egiten duzu eskolaz kanpo?
- 2.- Zer maiztasunekin?
- 3.- Zergatik aritzen zara horretan?
- 4.- Herrian bertan egiten duzu, edo kanpoan? Non?
- 5.- Noiztik zabilta eskolaz kanpoko jarduera horretan?
- 6.- Bakarrik joaten zara? ala lagunekin?



INKESTA



Eddy Cristian:

- 1.- Futbola.
- 2.- Bizpahiru aldiz.
- 3.- Gustuko dudalako.
- 4.- Kanpoan eta Deban.
- 5.- Duela bospasei urte hasi nintzen.
- 6.- Lagunekin.



Janire Torronteras:

- 1.- Sukaldaritza eta frantsesa.
- 2.- Sukaldaritza astean behin, eta frantsesa birritan.
- 3.- Sukaldaritza ikasi eta beste hizkuntza bat ere jakiteko.
- 4.- Herrian egiten dut guztia.
- 5.- Sukaldaritzan aurten hasi naiz eta frantsesean 6. mailan hasi nintzen.
- 6.- Lagunekin.



Ane Ladera:

- 1.- Frantsesa eta ingelera.
- 2.- Birritan joaten naiz bakoitzera.
- 3.- Ikasteko.
- 4.- Herrian egiten dut.
- 5.- Duela hiru eta bost urte hasi nintzen, hurrenez hurren.
- 6.- Lagunekin joaten naiz.



Joseba Sanchez:

- 1.- Futbola.
- 2.- Lau aldiz.
- 3.- Gustatzen zaidalako joaten naiz.
- 4.- Bertan aritzen naiz, herrian.
- 5.- Txikitatik.
- 6.- Lagunekin.



Ibai Ponce:

- 1.- Futbola, eta batzuetan igeriketa.
- 2.- Futbola birritan, eta igeriketa astean behin.
- 3.- Gustatzen zaidalako egiten dut.
- 4.- Deban eta Zumaian.
- 5.- Futboleant txikitatik jokatzen dut, eta igeriketara duela bi urte hasi nintzen.
- 6.- Futbolera lagunekin eta igeriketara bakarrik aritzen naiz.



Ane Txurruka

- 1.- Futbola, sukaldaritza, atletismoa, ingelera eta aerobika.
- 2.- Futbola eta ingelera bi aldiz, sukaldaritza bi astean behin, eta atletismoa eta aerobika astean behin.
- 3.- Gustatzen zaidalako.
- 4.- Herrian, baina atletismoa egitera Elgoibarrera joaten naiz.
- 5.- Txikitatik, eta sukaldaritzan aurten.
- 6.- Lagunekin.




Haritz Alberdi:

- 1.- Futbola.
- 2.- Astean bi aldiz.
- 3.- Gustuko dudalako egiten dut.
- 4.- Deban.
- 5.- Orain dela lau urte hasi nintzen.
- 6.- Lagunekin joaten naiz.




Iزارo Altzibar:

- 1.- Aerobika.
- 2.- Astean bizpahiru egunetan.
- 3.- Gustatzen zaidalako.
- 4.- Herrian praktikatzen dut, Itziarren.
- 5.- Sei urte nituenetik.
- 6.- Lagunekin.




DenBord-pasaak


QUIKITU EZBERDINTASUNAK



LABIRINTOA



LOTU PUNTUOK



EGILEAK: Sara Goikoetxea eta Paola Iñurrieta

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALERRA 2014-2015

Maite Iglesias
Leire Amesti
Maialen Beristain
Sara Goikoetxea
Janire Salegi

Itsaso Iciar
Naia Agirregabiria
Paola Iñurrieta
Olatz Irusta
Aiora Zubizaray

Koordinatzailea: Joseba Agirreoa

Zubeltzu, VI. Bertso Paper Sariketa



Apirilaren 17an (ostirala) banatu ziren, seigarrenez, Zubeltzu bertsolariaren omenez antolatu ohi den bertso-paper sariketako garaileentzako sariak. Ohi den bezala, hiru kategorietan banatu ziren lanak eta hauexek izan ziren, hurrenez hurren, lanik onenen egileak:

LHko neska-mutilen artean:

1. saria: Itziar Egaña
2. saria: Lierni Jiménez
3. saria: Elene Molina

Horiek gai hau izan zuten bertso bat edo bi koplak osatzeko: "Hau da nire ametsa". Gure gaztetxoan artean gehien errepikatu den ametsa, kirolari, aktore edo kantari ezagun bilakatzearena izan da baina, tartean, agertu dira beste batzuk ere. Adibidez, denok zoriontsu izateko nahiaz aritu zaigu Itziar bera.

DBHko neska-mutilentzako

gaia honako hau zen: "Gaur ere negar egin du".

Hunkigarritasun handiko bertso sortak bildu ditugu kategorian honetan: alargun geratutako baten malkoak, bullina sufritzen duen mutikoarenak, anorexiak jota dagoen gaztearenak edo minbizia duen gazte baten amarenak. Hona nola geratu den sailkapena:

1. saria: Aloña Salegi
2. saria: Itzale Laka
3. saria: Julia Ron

Nagusia gai librean aritzen dira eta, beraz, askotarikoak izan dira landutako tematikak: Alzheimerra, kartzela, lotsak, desirak,... Hona hemen sarituen zerrenda:

1. saria: Manex Astigarraga
2. saria: Karlos Larrañaga
3. saria: Josune Arakistain

Agirre jauregiko ispiluen

gela banatu zituzten sariak Debako Udalak eta Zuhatza euskara elkarteak. Sariak banatzearekin batera, egileek euren bertso sortak kantatu zituzten bildutako gozamenerako.

Amaitutakoan, bertso-trikitikiteoa abiatu zen bertatik, bertso-afarirako ordua iritsi arte, kaleak bertso, koplak eta musikaz betez. Eguna, bertso afariarekin amaitu zen, esan bezala. Iker Zubeldiak eta Nerea Elustondok giro polita jarri zuten mahai inguruan. Hurrengo urterako gogoak piztuta mantenduko duena, ziur.

Sariketara aurkeztutako lan guztiak liburuxka batean bildu eta argitaratuko dira aurten ere. Bien bitartean, Aloña Salegi irabazle gazteak idatzitako lana ekarri nahi izan dugu aldizkariara. Hemen behean duzue irakurgai.

Gizon misteriozua

1. Kalera irten eta segidan
hantxe egoten da bera
frontoiko aulkia hartu eta
beti egiten du zera:
zuzen-zuzen begiratzen dizu
eta pentsakor jartzen da
ez dakigu zer pentsatzen duen
onera edo txarrera.

2. Beti leku berdinean dago
eta negar malkoetan
batzuek ez dakite zer egin
halako egoeretan
ordu guztiak beltzez jantzita
bai egun ta bai gauetan
ez du inorekin hitzegiten
arraroa da benetan

3. Berarengana hurbilduko naiz
pentsatzen dut egunero
askok gaiztoa dela diote
edo dagoela ero
ez dugu inoiz ezer jakingo
horrela egon ezker
berarekin aurpegiz aurpegi
egon nahi nuke goizero

4. Gaur ere frontoiko aulkian da
nik nahi nioke lagundu
Javier eta alarguna da.
Horixe kontatu digu
horregatik egiten du negar
hori ere jakin dugu
begitara begiratu diot
gaur ere negar egin du

5. Asko esaten didate zure
begi gorritutakoak
isiltasunez barruan dauden
gauz triste gordetakoak
onartu gure elkarrizketa
broma eta hitz-jokoak
irrifar gozo bihur ditezen
begietako malkoak.

(*Doinua: O baserritxo)
Egilea: Aloña Salegi Alkorta -Arbil-.




Argazkia Allikarena da eta bertan ageri diren pertsonak identifikatzeko lana Jose Luis Albizuk eta Esperanza Beitiak egin dute, beste hainbat lagunen kolaborazioarekin.

DEBA: 1994ko maiatzaren 1ean ateratako argazkia. Arbil Jubilatuen Elkarte

1- Gregoria Lizarzaburu
 2- Josefa Aguirregabiria
 3- Carmen Alcibar
 4- Carmen Olaizola
 5- Maritxu Etxeberria
 6- Candida Salegi
 7- Mertxe Treku
 8- Petra Urain
 9- Flora Martin
 10- Julián Masach
 11- Federico Varela
 12- Felix Iciar
 13- Felisa Sorazu
 14- Esperanza Azpiazu
 15- Pedro Ruiz

16- Mikel Egaña
 17- Miren Pagnon
 18- Vicenta Macazaga
 19- Adón Etxebarri
 20- Eugenia Alberdi
 21- Miren Fernández
 22- Ramona Zubizarreta
 23- Juanita Galarraga
 24- Benigna Garate
 25- Maria Jesus Agirre
 "Zumaiarra"
 26- Begoña de la Cruz
 Llantada
 27- Pepita Ostolaza
 28- Rosa Urrestilla


29- Catalina Ziaran
 30- María Larrañaga
 31- Mateo Iriondo
 32- Amalia Sanz
 33- Joaquina Iriondo
 34- Rosario Alberdi
 35- Timotea Txopitea
 36- Maria Jesus Beitia
 37- Inés Irizar
 38- Estefanía Martija
 39- Dolores Ostolaza
 40- Amparo Esnaola
 41- Faustina Osa
 42- Dativo Pérez
 43- Pilar Valledor



44- Pepe Epelde
 45- Viviana Askasibar
 46- Emeteri Zumárraga
 47- Iñaki Martínez de Amategi
 48- Martín Galarraga

49- José Esnaola
 50- Julián Esnaola
 51- Liduvina Curiel
 52- Carmen Eizaguirre
 53- Francisco Egaña
 54- Juanito Bereciartua

55- Pedro Salegi
 56- Jose Mari Eizaguirre
 57- María Unanue
 58- Francisca Zabala
 59- Maritxu Galarraga
 60- Amparo Calleja



Agenda

Maiatzak 22-31

-XXIX. Antzerki Astea. Egitarau osoa ikusgai aldizkari hone-tako 8. eta 9. orrialdeetan.

-Geoparkearen Astea. Deban, Mutrikun eta Zumaian ekimen ezberdinak burutuko dira. Informazioa: www.geoparkea.com.

Maiatzak 23, larunbata

-Erromeria Lasturren. Laja, Izer, Elustondo... talde ezberdinak izango dira plazan. Gainera, umeentzako eta helduentzako ekintzak antolatuta dituzte arratsalderako.

Maiatzak 24, igandea

-Udal eta foru hauteskundeak 2015.

Maiatzak 25, astelehena

-18:00. Luzaroko ikasleen bertso jaialdia, Aldats pilotalekuan.

Maiatzak 29, ostirala

-19:30. Azken ostirala. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

Maiatzak 30-31

-8:30. Mendi irteera (bi eguneko). Burdin Kurutz M. T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

Ekainak 5, ostirala

-22:00. Branka Aerobik Taldearen jaialdia, Aldats pilotalekuan.

Ekainak 6, larunbata

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

Ekainak 13, larunbata

-22:00. Kulunka Dantza Taldearen jaialdia, Aldats pilotalekuan.

Hiru Txirlo Bolo Txapelketa, azken txanpan

-Hiru jaurtialdi gelditzen dira Gipuzkoako XLVI. Hiru Txirlo Bolo txapelketa amaitzeko. Hurrengo saioak maiatzaren 23an (San Roke, Elgoibar), maiatzaren 30ean (Ezozia, Soralue) eta ekainaren 6an (Florea, Azkoitia) izango dira. Saioak 17:00etan hasiko dira.

2015eko Euskal Jairako kartel lehiaketa

-Zuhatza Euskara Elkartek irailan ospatuko dugun aro berriko XVIII. Euskal Jairako kartel lehiaketa antolatu du.

Kartelak derrigorrez testu hau izan beharko du: "EUSKAL JAIA 2015 DEBA" (euskara hutsean). Partaideak bertako izan behar dira eta lan bakarra aurkeztu dezakete lehiaketara. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zenti-

metrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika libre).

Kartelak ekainaren 30erako aurkeztu behar dira, Zuhatzaren lokalean. Kartel irabazlea botoen bidez hautatuko da, erakusketa batean, eta lan saritua Zuhatzaren esku geratuko da. Animatu eta parte hartu!

Musika eta Dantza Eskolako matrikulazioa

Debako Musika eta Dantza Eskolak 2015/2016 ikasturterako ikasle berrientzako matrikulazio epea zabalik izango du maiatzaren 18tik ekainaren

18a bitarte. Izena emateko inprimakiak Agirre jauregiko idazkaritzako bulegoan eskuratu daitezke. Informazio gehiagorako: 943 19 20 16.

Ikastaroak

-Debako Arte Eskolan Serigrafia eta Litografia hastapen ikastaroak eskainiko dira ekainean. Nerea Lopez Lanzetak emango du Serigrafia ikastaroa eta Iñaki Rifaterrek, berriz, Litografiari dagokiona. Informazio gehiagorako: 943 19 18 04 edo www.debarte.net ataria.

-KZguneak goizeko ordutegia izango du maiatzean eta arratsaldekoa ekainean. Hainbat ikastaro eskainiko dira, hala nola oinarrizko internet ikastaroa eta IT Txartelen inguruko. Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29 telefono zenbakia.

XII. Juan San Martin Beka

-XII. Juan San Martin Bekaren deialdia egin du Eibarko Udalak, UEUrekin lankidetzan. Helburua euskarazko ikerketa lanak sustatzea da eta

aurtengo deialdian ETNOLOGIA izango da bekaren ikerketa-lanaren gaia. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa da. Oinarriak: www.eibar.eus-en.

JOSE A. GALDONA AIZPURUA
HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak
Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

English Academy
NORTH STREET ENGLISH
Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 29, 30, 31.**
ekainak 8, 9, 10, 11.

Burgoa Zuazo: **maiatzak 25, 26, 27, 28.**
ekainak 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 30
ekainak 6

BURGOA ZUAZO: ekainak 13 eta 20


9:30 - 13:30



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



RPS: 183/12

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com



Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 77 29



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



oskarbi

Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 486 - 818 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aitariak: 20:00 / 23:00

Deba eta Itziarren

KOLOREZ BLAI UDALEKUAK



*Lehenengo txanda (uztailak 6-17): HH5 (2009) eta LH1-2 (2008-2007)
Bigarren txanda (uztailak 20-30): LH3-4 (2006-2005) eta LH5-6 (2004-2003)*

IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO!!

Maiatzaren 18tik 29ra, Zuhatza euskara elkartearen bulegoan.

*Ordutegia: astelehena, asteazkena eta ostirala (9:00-11:00)
asteartea eta osteguna (18:00-20:00)*

Informazio gehiagorako: koloreanitz@gmail.com edo 943 19 13 83.



Zuhatzza
euskara elkarteak deba



Debako Udala